

udaltop

**UDALETAKO
EUSKARA
ZERBITZUEN**

TOPAKETAK

www.udaltop.eus



GOGOBETETZE INKESTAREN

EMAITZAK

2019ko maiatza



Sarrera

Elkar ulertzetik elkarrekin lan egitera... Ados? izenburupean, Udaltop Udaletako Euskara Zerbitzuen Topaketa egin da 2019ko maiatzaren 16an eta 17an Lasarte-Oriako Manuel Lekuona Kultur Etxean. Partehartzaile, hizlari, aurkezle, gonbidatu eta antolatzaileen artean 208 lagunek parte hartu dugu hamaikagarren edizioan.

Partehartzaileen iritzia ezagutzeko asmoz, **Balorazio inkesta** bidali zaie eta astebetean, 92 erantzun jaso ditugu. Galdetegian, sei eremu jaso dira zenbakiz –eskala numerikoan, 1-5 artean puntuatzeko– eta idatziz erantzuteko:

1. Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
2. Talde-lanaren dinamizazioa egokia izan al da?
3. Zer iruditu zaizu Araetako otorduen zerbitzua?
4. Zer iruditu zaizu Pantxika Lamourrek eskainatuko amaiera ekitaldia?
5. Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu?
6. Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?

Oharrak:

1. Hitzaldi guztiak banan bana baloratzeko eskatu dugun arren, txosten honek ez du jasotzen balorazio hori.
2. Idatziz egindako komentarioetan errepikatzen ziren ideiak bateratu egin ditugu.



Erantzunak, batz bestekoak

Jarraian, galderaz galdera, **Balorazio inkestan** jasotako erantzunekin ateratako batz bestekoak, puntuaziorik altuena 5a dela kontuan izanik.

- Eskainitako hitzaldiak egokiak izan al dira?
 - Batz bestekoa: **3,65 puntu.**
- Talde-lanaren dinamizazioa egokia izan al da?
 - Batz bestekoa: **3,98 puntu.**
- Zer iruditu zaizu Araetako otorduen zerbitzua?
 - Batz bestekoa: **3,77 puntu**
- Zer iruditu zaizu Pantxika Lamourrek eskainatuko amaiera ekitaldia?
 - Batz bestekoa: **3,91 puntu**
- Topaketa hauetan espero zenuena jaso al duzu?
 - Batz bestekoa: **3,62 puntu.**
- Zer iruditu zaizkizu topaketak oro har?
 - Batz bestekoa: **3,80 puntu.**



Erantzunak, iruzkinak

Hitzaldi, talde lanetako dinamizazio eta beste hainbat konturi puntuazioa jartzeko eskatzeaz gain, partehartzaileei hobetzeko iruzkinak eskatu dizkiegu. Hona hemen erantzunak, atalez atal.

Hitzaldiak

1. Uste dut toki ezberdinetako esperientzia positiboak kontatzea izan dela gehien bat aurtengo Udaltop. Gehiago espero nuen elkarlanerako klabeen inguruan aritzea; pertsonen arteko konfiantza zelan lantzen den, zer egin eta ez egin elkarlana mantentzeko eta horrelako gauzak. Ikuspuntu horretatik, Gorka Espiauren azken hitzaldia positiboa iruditu zitzaidan. nahiz eta nahiko abstraktua geratu. Eskertzekoa da egiten duzuen esfortzua, jartzen duzuen interesa eta lana, baina aurtengoak ez nau guztiz asebate.
2. Araetan ez zen ondo entzuten hizlari edo elkarrizketatuen jarduna.
3. Arratsaldeko saioa ken liteke. Bazkaldu ostekoa oso interesgarria izan zen, eta ezer ezean geratu zitzaigun askori. Goizera pasako nuke, eta bazkaria kendu.
4. Lehendakaritzako esperientziaren berri ematea Udaltop bezalako foro batean desegokia iruditu zait. 30 urteko normalizazio lanen ondoren ostiraletan kafea euskaraz hartzen hasi direla esateak izugarritzko kezka sortu dit. Argi dago asko dagoela egiteko oraindik...
5. Testigantzen bideoetan eskertuko litzateke azpidatzietan jartzea zeri erantzuten dioten elkarrizketatuek.
6. Beharbada, hitzaldirik teoriko eta trinkoenei (Zubiaga eta Espiau) hizkuntzaren testuinguruari gehiago lotzea falta izan zitzaien.
7. Talde lanean hasieran gutako asko galdu samar ibili ginen. Agian hobeto azaldu behar izan zenuten sortu beharreko plataforma hori zertan zetzan eta adibide edo



praktika zehatzago bat proposatu.

8. Pantxikarena pittin bat luzea eta errepikakorra... nahiz barre galantak bota genituen.
9. Kudeaketaz hainbeste aritu ondoren, Euskalit erakundearen esperientzia falta bota nuen.
10. Hitzaldi gehienek ez didate aparteko ekarpenik egin.
11. Agintarien presentzia jardunaldi guztian.
12. Bikainak izan dira.
13. Eduki praktikoagoa espero genuen.



Topaketak, oro har

1. Hitzaldiak, oso trinkoak. Horretaz gain, lan taldean proposatu den eginkizuna hain orokorra izanda, bada, oso azalekoa geratu da.
2. Hurrengo Euskaraldian nondik nora jo argitzen lagundu dezakeen ideia bat faltan izan dut.
3. Espero gabeko hitzaldi-hausnarketak jaso ditut; bi egunetako lehenak oso interesgarriak iruditu zitzaizkidan.
4. Zorionak egindako lanagatik, segi lanean!
5. Praktika egokiak agerian jartzea egokia iruditzen zait, baina zenbait kasu gaindituak beharko luketenak agerian uztea larria iruditzen zait, Lehendakartzakoa, esaterako. Ez zait zoriontzekoa iruditzen 30 urtez Euskara teknikariak erakundean lanean ibili ostean borondate kontuetan geratzea euskararen erabilera.
6. Elkarlana planteatu den gisara, gehiegi erantzun dio agintarien "dena kontrolatzeko helburuari". Topagunea eta HPSren elkarlana justifikazioa gehiago zen, praktika ona baino. Euskaraldiaren irakurketa sanoagoa egingo zela uste nuen. Elkarlanaren praktika on gutxi erakutsi dira (Goiena eta Aiaraldea). Alderdi eta agintarien praktika on gutxi ikusi dira. Politikak, agintariak eta alderdiek elkarlanean duten zentralitateaz hitz gutxi entzun da. Udal teknikaria ez da guztiaren erantzule, askotan manupeko kudeatzaile baino.
7. Hitzaldi berritzaile eta mamitsu gutxi, betelana kasu askotan. Egia da ez dela erraza urtero gai eta hizlari berriak ekartzea.
8. Asko gustatu zitzaidan talde lanaren amaieran proposatutako galdera: zer daramazu etxera? Norberaren gogoetarako oso baliagarria irudi zitzaidan.
9. Tokiko administrazioa eta gizarte eragileen arteko lankidetzaren lege araubideetan gehiago sakontzea eta zehaztasun gehiagotara heltzea espero nuen.
10. Oso interesgarria izan da, berez, baina bitxikeria da gobernantza eredu berriak



ordezkari politikoen ia presentziarik gabe jorratzea. Hasierako argazkiaz gain, non daude? Zergatik apuntatzen dira, urterik urte, horren alkate eta zinegotzi gutxi?

11. Maila apaleko aurkezpenak tartean, kontu oso ezagunak: Arratiako lan mundua... Hauteskunde garaian politikoei tokia egitea ez zait egokia iruditu.
12. Hizlarien komunikagarritasunak izan beharko luke irizpideetako bat hizlariak aukeratzekoan. Edozein ez da gai kontu jakin batzuen gainean jendaurrean azalpenak emateko. Hizlari batzuk astunak dira, ez dute komunikatzeko ahalmenik, edukia bera lausotzen dute, eta aspergarriak dira.
13. Oso interesgarriak iruditu zaizkit Zubiagaren eta Espiauren hitzaldiak; baita talde lanean egin beharreko ariketa, baina denboraren presiopean egin beharrak egitekoa hankamotz utzi zuen.
14. Uste dut oso ondo dagoela, bai neurriz, bai edukiz.



Hobetzeko iruzkinak

1. Gorka Espiauren txostena, gutxienez, webgunera egun bat lehenago igotzea komeni zen.
2. Elkarlana interesgarria da eta 2020ko Euskaraldirako beharrezkoa. Baina 2020ko Euskaraldiaren edukiari lekua egin behar zitzaion Udaltop honetan.
3. Denboraren kudeaketa.
4. Topaketen lehen egunak luze jotzen du. Bi goizetara mugatuko nuke.
5. Elkarlana aipatu da behin eta berriro aurtengo jardunaldietan, eta elkarlanerako aukera bikaina iruditzen zait talde-dinamikan egindako moduko ekintza gehiago antolatzea beste urte baterako, elkarlan horretatik ideia berri eta iritzi asko jaso baitaitezke.
6. Gaiak bi egunerako ematen ez duenean, egun batera ekar daitekeela topaketa iruditzen zait.
7. Aurkezlearen txantxak une batzuetan inpertinentziaren mugetara hurbildu dira... Eskerrak halako batean konturatu eta barkamena eskatu zuela.
8. Oso interesgarria iruditu zait. Berrikuntzari tarte handiagoa eman behar zaio. Goxokia aurrean jarri eta gero sakontzeko modurik ez.



Datozen edizioetarako gai proposamenak

1. Espazio fisikotik birtualera, euskara bidelagun / Euskara erraza administrazioa vs erdara koropilatsua, guretzat aukera?
2. Gazteak, merkatariak, lan-mundua. Babes legala.
3. Hizkuntza komunitatea trinkotzearen inguruko topaketa; kopurutik taldera pasatzea; horrek eskatzen dituen alderdi psikosozialak, baldintza ekonomikoak eta abar.
4. Osasuna eta hizkuntza.
5. Interesgarria litzateke euskara planetan erabakiak hartzen dituztenak hitzaldi interesgarri hauen konklusioak eta gomendioak entzutea. Agintari politikoentzako esparru bat proposatuko nuke.
6. Dekretu berriaren eragina.
7. Euskarari buruzko iritziak eta balioespenak.
8. Euskara eta aniztasuna.
9. Elkarlanean beste gauza batzuk ere egiten dira. Ezagutzarekin lotuta daudenak (merkatariak euskalduntzeko, adinekoen euskalduntzea, etorkinekin lotutakoak, trebakuntza, aisialdian....)
10. Esperientziak elkarri kontatzea da gakoa, baina aurtengoan erakutsi direneko batzuk ez zaizkit oso egokiak iruditu: ez direlako esanguratsuak (Arratia, Lehendakaritza), ondo ezagun direlako eta gure lanari hainbeste ez diotelako eragiten (Goiena), ekarpen oso txikia egin dutelako (Euskaraldiaren antolaketako gorabeherak).
11. Euskaraldia, Gazteen arteko erabilera, Kirola-euskara, HE kontratuetan...
12. Euskara Zerbitzuen eraketa XXI. mendean.



13. XXI. mendeari begira, euskalgintzaren baloreak ... Agirre Lehendakari Center.
14. ETELen garapen dekretua.
15. Euskaraldia 2020ra begirako praktika onak.
 - Euskaraldia nola jarri martxan administrazioetan.
 - Teknologia berriak Euskaraldian; Arnasguneak eta euskaraldia.
 - Zelan uztartu Euskaraldia eta gure mikroproiektuak Euskaraldiak ito edo jan ez gaitzan. Euskaraldia antolatzeko tokiko esperientzia praktiko eta emankorrak aurkeztea.
 - Euskaraldia: bertan dugu (ireki perspektiba: enpresa mundua, elkarteak, herri-erakundeak ...)
16. Zeharkakotasuna. Bestelako gizarte-eraldaketa prozesuekin zertan egiten dugu bat?
17. Ezberdinen arteko elkarlana, aliantzak. Departamentu erabat ezberdinen artekoak...
18. Akaso ez da topaketarako gaia, baina bai bilera baterako: euskara teknikarien jubilazioak, laster datoz, errenkadan. Komeniko litzateke jarraipena ziurtatzea.
19. Hizkuntza berdintasuneko legea, Valentziako ekimena.
20. Etorkinen kolektiboak gure udalerrietan topatzen dituen zailtasunei aurre egiteko gakoak, batez ere hizkuntzaren transmisioan.
21. Arlo desberdinetako proiektu arrakastatsuen gakoak... Inmigrazioa eta hizkuntza aniztasuna.
22. Etorkinak eta euskara/ Familia transmisioa/ Gazteak.
23. Goizegi da gai berriak proposatzeko. Hala ere, nire burutik behin eta berriz pasa



den kontu bat aitatuko dizuet. Ederra litzateke Udaltopera herrietako alkate-zinegotziak azaltzea. Momentuz, oker ez banago, teknikariak eta antzerakoak azaltzen gara, baina ez legoke gaizki alkate-zinegotziak ere animatzea. Haientzako mezu asko biltzen da Udaltopen.

24. Gobernantza eredu berriak eta euskarak horietan duen papera.
25. Udal legea onartu izanaren eragina/aplikazio-maila herri-administrazioetan.
26. Arnasguneen kontzeptua erakunde barruan; Belarriprestak nola erakarri?; Turismoa eta euskaraz; Hizkuntza eskakizun asimetrikoak nola landu....
27. Esperientzia praktiko gehiago.
28. Udal Legearen ondorioz udalak burujabeago? Zenbateraino?
29. Administrazioen arteko elkarlana, egitura...
30. Gizartearen psikologia eta eragiteko baliabideak.
31. Euskal diasporari buruzko lekukotzaren bat gustura entzungo nuke: Mike Bidart - bostgarren belaunaldia euskaraz mintzo da Los Angelesen-, Joseba Etxarri aditua...
32. Ikastetxeetan eleaniztasuna barneratzeko eta euskarari dagokion pisua emateko esperientzia eredugarriak.
33. Elkarlanean sakondu daitekeela uste dut, alde teknikoagoa jorratuz, beti ere. Hizkuntzen aniztasunaren kudeaketa. Euskaltzaletasunaren feminizazioa eta feminismoa, mehatxuak, indarrak, elkarlana...
34. Klusterrak erakutsitako datuak xehatuago entzungo nituzke. Herritarrak jarriko nituzke hizketan, zer behar duten, nola nahi duten. Liberatuak dituzten taldeez harago joango nintzateke. Gogoetarako tartea hartuko nuke.
35. Gazteen kontsumo-molde berriei nola eragin/erantzun udaletatik? Hizkuntza eskubideak udaletan nola bermatu.



36. Ez dut uste gaiak topaketa bakar batean landu eta agortu egiten direnik. Aurten lankidetzaz eta gobernantza hartu baditugu, datorren urtean ere segida izan beharko luketela uste dut. Esperientzia berriak ikusi eta ertz gehiago landu.
37. Euskara zehar lerroa administrazioan eta herrigintzan.
38. Gizarte digitala eta hizkuntza berdintasunaren sustapenaren kudeaketa.
39. Transmisioaren garrantzia; nola mugiarazi (astindu, motibatu, kontzientziatu,...) belaunaldi berriak.
40. Euskalduntzearen erronkak EHn.
41. Gaur egungo gizartearen jarrerak eta iritziak euskararen biziberritze prozesuari eta beharri buruz.
42. Euskararen kontseilu nazionala (mixtoa, eragile sozialak eta erakundeak kide izango dituen).
43. Nola lortu euskara gure agintari politikoaren agendan egotea?
44. Gazteak eta euskara (ikuspegi ezberdinak euskararekiko).
45. Nik uste, gaur egun nahita ezkoa dela bazkalostean nahikoa modu informalean landu zen gai hori arduraz eta sakon lantzea: administrazioa gizarte eragiletzari jartzen dizkion zailtasunak gainditzeko bide legalak eta akordioak.
46. Gobernantza eta autogobernantzaren gaiaren jarraipena.
47. Euskara enpresa arloan eta lan munduan.
48. Ordezkaritza politikoei dei zuzenagoa, akaso? Gai "politikoagoa", akaso? Alderdiak ba al dute irizpide jakinik hizkuntza normalizazioari begira?
49. Administrazio elektronikoa, euskara eta egun dugun legediarekin zer dator? Nola egin aurre lortutakoa ez galtzeko?
50. Euskara; borondatea vs beharra.



51. Jauriaritzaren dekretu (proiektu)-aren garapena / Administrazioan ezagutzatik erabilerarako jauzia emateko gakoak, esperientziak, teknikak.....eta horretan nola lagundu dezakete herritarren aktibazio kanpainak, gizarte-eragileek.....
52. Kultura eta euskara, sormena euskaraz nola bultzatu...
53. Umorea eta euskara. Nola erabili euskara euskararen erabileraren sustapenean?
54. Gorka Espiauk azaldutakoa sakontzea.
55. Normalizatzaileen lanean berezituaren ikuspuntutik, hobeto bideratzeko komunikazio estrategiak.
56. Hizkuntza aniztasuna, gazteak, etorkinak...
57. Elkarlana sakondu.
58. Euskararen normalkuntza eta prentsa (ez euskaraz egiten dena bakarrik): zein harreman, zein irudi transmititzen da...
59. Euskara teknikariak: dinamizatzailerak ala burokratak?
60. Seaska eta euskalgintza iparraldean.
61. Sare sozialak, teknologia berriak, hizkuntzen teknologia...



Bestelako aipamenik

1. Uste dut zaila dela gai egoki eta hizlari onak ekartzea, baina uste dut, halaber, aurkezpenak ondo presta ditzaten lan egin behar dela, euskara txukunean eta azalpen egokiekin egin ditzaten..
2. Hasierako ekitaldi instituzionala oso "maskulinoa" izan zen. Argazkian agertu ziren emakumeek ez zuten hitz egiteko aukerarik izan. Ez nuen ulertu.
3. Kontratazioa: saio praktikoak. Arratsaldeko saioan egin zen ahaleginaren haritik. Bukatzeko: mila esker denagatik. Topagune hori arnasa da guretzat.
4. Topaketan izena ematen dugun guztiok ez dugu aukerarik izaten programatutako jarduera guztietan parte hartzeko. Eta inkestak ez du aukerarik ematen adierazteko, adibidez, ez zarela hitzaldi-jarduera batean izan, edo galdera bat erantzun gabe uzteko. Ezin izan nintzen ostiralean bertaratu; eta ostiraleko jarduerak baloratu behar izan ditut. Proposamenak: hainbat galdera erantzun gabe uzteko aukera egotea; edota beste erantzun bat txertatzea: ez nintzen izan (adibidez).
5. Jatetxean egiten diren saioak ez dira behar bezala entzuten eta zaila da hitzaldia jarraitzea, arreta jartzea. Plater hotsak... hizlariak ere ez dut uste oso eroso egongo direnik. Goiza luzatu eta arratsalderako hitzaldirik ez uztea proposatuko nuke. Bazkaldu eta handik bakoitza bere etxera.
6. Hizlariak ondo egon dira oro har, baina gaiak ez dira hain egokiak izan, nire ustez, nire lanari dagokionez, behintzat.